



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

# Energia irisgarria eta ez kutsagarria

ESKOLAKO AGENDA 2030

2024EKO APIRILA

## UROLA KOSTA

2023-2024 IKASTURTEA



7 ENERGIA IRISGARRIA  
ETA EZ KUTSAGARRIA



## NON UTZI GENUEN?

lazko urte bukaerako foroan ostean, Urola Kostako ikastetxeak proposaturiko herri-mailako ekintza posibleetan lan egiten hasi ginen.

Gauzak horrela, ikastetxe bakoitzak aurreko foroan proposaturiko ekintzen nondik norakoak zehaztu genituen, baita ekimen hauek udalari aurkezteko prestatu ere.

## LEHENENGO UDAL FOROEN OSPAKUNTZA

Ikasturte honetako udal foroan xedea eskoletan landutakoa udalari azaltzea eta herri mailan burutuko den ekintza zein izango den erabakitzea da. Horretarako, udaleko ordezkari baten presentzia eskatzen da, hala nola udal teknikari bat, zinegotzi bat edota alkatea.



## ZESTOAKO FOROA

Zestoako udal foroa urtarrilaren 31an ospatu genuen. Udaletxeko udalbatza-aretoan burutu zen eta Aizarnazabal eta Arroa ikastetxeetako 14 ikasle bertaratu ginen.

Bertan herriko ingurumen teknikaria gure zain zegoen, eta udaletik energiaren gaiaren inguruan lantzen ari zirena kontatu zigun!

Bukatzeko, denon artean ikasturte honetan energia irisgarria eta ez-kutsagarria bultzatzeko egingo diren herri-mailako ekintzak zehaztu genituen:

1. Garraio jasangarriaren garrantziaz kontzientziatzeko bizikleta martxak antolatzea Arroa eta Aizarnazabal auzoetan.
2. Energia berriztagarriekin lotutako eskulanean erakusketa eta lehiaketa bat egitea.



## ZARAUZKO FOROA

Zarautzen otsailaren 28an ospatu genuen udal foroa. Foroa Herriko Musika Eskolan egin zen eta jendetza izugarria bildu ginen: sei ikastetxe ezberdinetako 45 ikasle, 6 irakasle eta bi udal teknikari guztira!

Udaletik langile bat etorri zen udalak bultzatzen ari den energia ekimenen berri emateko. Gauza asko egiten ari dira!

Ondoren, klasean egindako lana denen aurrean aurkeztu eta ikasturte honetan burutuko ditugun ondorengoko ekintzak hautatu genituen:

1. Bizikletaren erabilera sustatzeko, herritarrei zuzendutako bizikletak konpontzeko tailerrak antolatzea.
2. Energia berriztagarriekin lotutako eskulanean erakusketa eta lehiaketa bat egitea.



## GETARIAKO FOROA

Getarian ospatu genuen hiruhilabete honetako azkenengo udal foroa. Udaletxeak haren ateak zabaldu zizkigun eta bertan alkatearekin bildu ginen Iturzaeta Herri Eskolako LH5 eta LH6ko 8 ikasle.

Alkateak Getariako Klima eta Energia planaren baitan martxan jarri dituzten ekintza ezberdinak azaldu zizkigun, baita herri-mailan energia berriztagarriak eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko egiten ari diren beste jarduera batzuk ere.

Ondoren herri mailan egingo duguna aukeratzeko dinamika bat egin genuen eta guztien artean **energiaren kontsumoa gutxitzeko kainuak biltzen dituen antzerki bat prestatzea eta grabatzea** erabaki genuen, ondoren herri mailan zabaldu eta herriko herritar guztiak gehiegizko kontsumo energetikoak dakarren inpaktuen inguruan sentsibilizatzeko!



## ETA ZUMAIAREKIN, ZER?

Nahiz eta fororako deialdia zabaldu, kanpo eragile ezberdinengatik ezin izan zen Zumaiako foroa egin. Hala ere, Aste Santutik bueltan ikastetxe eta udalarekin bilera bat egin eta Zumaiako Eskolako Agenda 2030aren hurrengo pausuk definituko ditugu.

Gauzak horrela, maiatza inguruan herri mailako ekintza erabakita eta burutzeko prest izango dugu!



## HURRENGO PAUSUAK

Orain udal foroetan erabakitako ekintzak prestatzeko garaia heldu. Horretarako, Aste Santutik bueltan udalerrri bakoitzeko ikastetxeek elkarlanari ekingo diogu herri mailako ekintzak antolatzeke eta maiatzean Urola Kosta energia irisgarri eta ez-kutsagarri baten alde dagoela erakusteko kalera aterako gara!

# ESKOLAKO AGENDA 2030 UROLA KOSTAN